

EGONALDIA EUSKAL IDAZLEENTZAT

DEIALDIAREN OINARRIAK:

1. HELBURUA:

Deialdi honen xedea da Etxepare Euskal Institutuak – 1863 Literatur Egoitzarekin lankidetzan – ezartzen dituen oinarri arautzaileak finkatzea, euskarazko eta edozein literatura-generotako idazleentzako egonaldia bat sustatzeko. Egonaldia hilabetekoa izango da (zehazki, 2024ko azaroan), Coruñako (Galizia - Espainia) 1863 Literatur Egoitzan.

2. HELBURUA:

Euskarazko idazleentzako Galiziako egonaldiaren helburua da hizkuntza horretako literatura-sorkuntza sustatzea eta bultzatzea, baldintza bikainetan eta Coruñako testuinguru lasai eta aldi berean kultura-bizitza aberatsekoan murgilduta.

Era berean, programa honen helburua da euskal idazleei espazio, denbora, giro eta baldintza ezin hobeak eskaintzea, beren sormenezko idazketa-proiektuari arreta osoz heltzeko, testuinguru egoki batean.

Coruñan egonaldia egingo duen idazleak museo, liburutegi, kontzertu, literatur topaketa, antzezlan eta bestelako ekitaldietarako sarbidea izango du lehentasunez, kultur bizitza aberatsa eta askotarikoa duen hiri oso seguru batean.

3. AURKEZTEKO EPEA ETA ESKAERA EGITEKO EPEA:

Euskarazko idazleentzako Galiziako egonaldian parte hartzeko eskabideak 2024ko uztailaren 2tik uztailaren 21era aurkeztu ahal izango dira (biak barne).

Egonaldia nork egingo duen hautatu eta iragarri ondoren, egonaldia bera azaroan gauzatuko da. Era berean, ordezkoko bat ere izendatuko da, egonaldia ezeztatzen den kasuetarako.

Aukeratutako idazleak hilabete natural horren hasieran iritsi beharko du Coruñara, eta hura amaitzean abiatu (ez da onartuko hilabete erdian iristea edo irtetea).

Egonaldiak gutxienez 21 egunekoa izan beharko du eta iritsiera eta itzulera jakinarazi beharko dizkie, idatziz, Etxepare Euskal Institutuari eta 1863 Literatur Egoitzari.

4. ESKATZAILEEN BETEKIZUNAK:

Deialdi honetan parte hartu ahal izango du hamazortzi urtetik gorako edozein euskal idazlek, gutxienez liburu bat argitaratuta badu, edozein generotan eta euskaraz.

5. BABESLETZA:

Etxeparek babesten du programa hau, eta Coruñako (Galizia – Espainia) 1863 Egoitzan euskarazko idazleentzako poltsa bat eskaintzen du (joan-etorria, dietak eta ostatua).

Horregatik, onuradunak gutxienez 1863 Literatur Egoitzak antolatutako ekitaldi batean parte hartu beharko du. Bertan, Etxepare Euskal Institutuarekin izandako lankidetzaren berri emango du, Institutuaren logoa erakutsiz.

6. PROIEKTUAK AURKEZTEA ETA ESKABIDEAK FORMALIZATZEA:

Euskarazko idazleentzako Galiziako egonaldien parte hartzeko lehiatzeko, hautagaiek literatur sorkuntzako proiektu bakarra aurkeztu ahal izango dute.

Eskabideetan, eranskin gisa honako dokumentuak aurkeztu beharko dira euskaraz (.doc, .docx, .odt edo .pdf):

- (1) Gehienez ere bi orrialdetan idatzitako curriculum (izen osoa, jaioterria eta jaioteguna, nortasun-agiria eta harremanetarako datuak barne).
- (2) PROIEKTUAREN memoria: egonaldian garatu nahi den literatura-proiektuaren deskribapena, honako hauek adierazita: literatura-generoa, sinopsia edo gai nagusiak, egitura, forma, estiloa, tonua, hartzailea eta/edo beste edozein xehetasun, balorazio-batzordeak lortu nahi duen sormen-planaren ahalik eta ideia hurbilena egin ahal izan dezan.

Literatura-proiektuaren memoria horrek erabat originala eta argitaragabea izan beharko du, eta ez ditu inoiz bi orrialdeak gaindituko (.doc, .docx edo .pdf).

- (3) Literatura-dosierra: Eskatzailearen literatura-lanaren erakusgarri gisa egoki diren aurreko literatura-piezak edo -zatiak (argitaratuak edo argitaratu gabeak) biltzen dituen dokumentua. Dokumentu honek ez ditu hamar orri baino gehiago izan behar (.doc, .docx edo .pdf).
- (4) Euskarazko idazleentzako Galiziako egonaldia eskatzeko motibazio-gutuna, gehienez ere orrialde batekoa.

Dokumentu horiek guztiak prestatu ondoren, mezu elektronikoa bakar batean bidaliko dira etxepare@etxepare.eus helbidera.

Mezu elektronikoen honako gaia adierazi beharko dute: "Euskarazko idazleentzako Galiziako egonaldia"

Hautagaitza osorik jasotzen ez bada, 10 egun naturaleko epea emango zaio hautagaiari dokumentazioa osatzeko.

7. HAUTAKETA ETA BALORAZIO-IRIZPIDEAK:

Aurkeztutako proiektuak Etxepare Euskal Institutuak eta 1863 Literatur Egoitzak izendatutako Balorazio Batzorde batek hautatuko ditu. Literatur sorkuntzan ospe handia duten profesionalak osatuko dute, eta horiek aukeratuko dituzte, behar bezala justifikatuta, egoitzako programa honetarako hautagairik onenak.

Horrela, Galizian egoitzan lan egingo duen pertsonaren izena erabakiko da, bai eta ordeko bat ere, lehenak bertan behera utziko balu ere.

Balorazio-batzordeak egonaldia merezi duen proiektua aukeratuko du, eta honako hauek ebaluatuko ditu:

- literatura-proiektuaren interesa, kalitatea eta bideragarritasuna.
- aurreko ibilbidearen bikaintasuna.
- motibazio-gutunaren egokitasuna.

8. DEIALDIAREN EMAITZA EBAZTEA ETA ARGITARATZEA

Hautaketa-prozesuaren ondoren Euskarazko idazleentzako Galiziako egonaldia esleitutakoan, aukeratutako pertsonari – baita ordezkoiari ere – jakinaraziko zaio 2023ko uztailaren bigarren hamabostaldian, emandako posta elektronikokoan bertan.

Ez zaie ezer jakinaraziko hautaketatik kanpo geratutako eskatzaileei.

9. ONURADUNAREN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen onuradun izango den pertsonak konpromiso hauek bete beharko ditu:

- Euskarazko idazleentzako Galiziako egonaldia esleitu zaiola jakinarazi eta hamar egun naturaleko epean, egonaldian parte hartzea eta egonaldia arautzen duten oinarriak onartzea aipatutako helbide elektronikora idatziz. Hala egin ezean, plazari uko egiten diola ulertuko da, eta horretarako hautatutako ordezkoiari esleituko zaio.
- Euskarazko idazleentzako Galiziako egonaldia eta, horrenbestez, 1863 Literatur egoitzako egonaldia, bere idazketa sortzailean lan egitera bideratzea, – ahalik eta zehatzen– jarraituz eskaerarekin batera aurkeztutako memorian deskribatutako proiektuari.
- Egoitzak Coruñan dituen instalazioak behar bezala erabiltzea arautuko duen akordioa onartzea eta betetzea, errespetuz, egoki eta arduraz, eta hitzartutako denboraldirako. Egoitzan ez da onartuko ezkontiderik, seniderik, laguntzailerik, ezta konpainiako animaliarik ere, sorkuntza-lanaren garapen individual kontzentratutako dela ulertzen baita. Era berean, Galiziara bidaiatzen duen pertsonak hilabetez bakarrik eta autonomiaz bizitzeko gai den norbait izan beharko du.
- Azken memoria labur bat aurkeztea (gehienez 200 hitz), izandako esperientzia eta literatura-sorkuntzari emandako bultzada balioesteko, etorkizuneko eskatzaileak orientatzeko baliagarri izango dena. Aipatutako helbide elektronikora bidali beharko da egonaldia amaitu baino bost egun lehenago hasi eta hamabost egun geroago arteko epean.
- Baldin eta, etorkizunean, egoitzatik ateratzen den literatura-testua argitaratu egiten bada, lan hori 1863 Literatur Egoitzan sustatu zela adierazi beharko da, Etxepare Euskal Institutuaren babesarekin eta Euskarazko idazleentzako Galiziako egonaldiari esker.

10. EGOITZAREN FINANTZAKETA:

Egonaldiak eragindako gastuak Etxepare Euskal Institutuak hartuko ditu bere gain, honakoak, hain zuzen ere:

- Egoitza.
- Euskal Herritik Galiziarako joan-etorria.
- Mantenua.

Egoitza zuzenean ordainduko dio Etxepare Euskal Institutuak egoitza kudeatzen duen erakundeari, horretarako berariazko hitzarmen baten bidez.

Egonaldiaren onuradunak 1.500 euro jasoko ditu Etxepare Euskal Institututik bidaia eta mantenu gisa. Zenbateko horren erdia egonaldiaren hasieran jasoko du, eta beste erdia amaierako memoria aurkeztu eta gehienez ere hilabeteko epean.

Horretarako, onuradunak egonaldia esleitu ondoren, 10 egun naturaleko epea izango du banku-kontuaren titulartasun-ziurtagiria aurkezteko lehen adierazitako helbide elektronikora bidaliz.

11. OHARRAK:

Programa honetan parte hartzeak esan nahiko du guztiz onartzen direla oinarri hauek.

Oinarri hauetan aurreikusi ez den kasuren bat sortuz gero, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariak ebatziko du.

Egoitzako programa honekin lotutako edozein zalantza argitzeko, etxepare@etxepare.eus helbidera jo dezakezue.